



LASARTE-ORIA

UDALA-AYUNTAMIENTO

LASARTE-ORIAKO UDALAREN ETA SASOETA AUZO ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

IDENTIFIKATZEN DIRA

Alde batetik, Agustín Valdivia Calvo, Lasarte-Oriako Udaleko alkate gisa (IFZ: P-2009500-F), hitzarmen hau sinatzeko baimena duela, legeak ezarritakoarekin bat etorriz, bere kargua betetz eta esleituak dituen ardurak bere gain hartuz esku hartzen duela.

Eta bestetik, Iban Muñoz Menak, bere NAN zenbakia XXX4505XX izanik, SASOETA AUZO ELKARTEAREN izen eta ordezkaritzan; horren helbide soziala eta fiskala Lasarte-Oria, Kale Nagusia 46., behean (20160 - Gipuzkoa) duela (IFK G20449963)

Elkarte hau EHAOk erregistroan inskribatua dago AS/G/320220/2016 inskripzio zenbakiarekin.

Aldeek lankidetzahitzarmen hau beren izenean eta ordezkatzeko dituzten erakundeenean sinatzeko nahikoa lege-gaitasun dute eta hala aitortzen diote elkarri, eta hori dela eta:

ADIERAZTEN DUTE

I.- SASOETA AUZO ELKARTEA-k Lasarte-Oriako udalarekin elkarlanean aritzeko interesa du bere helburu sozialaren eremuan jarduera batzuk egitea helburutzat duten gizartearen nahiz kulturaren arloko proiektuak garatzeko eta, bereziki, bere estatutuetan jasotzen denaren arabera:

Kulturgintza: Irabazi asmorik gabeko kultur eta kirol jarduerak.

II. SASOETA AUZO ELKARTEA-k Lasarte-Oriako udalerrian hainbat eginkizun eta jarduera egiten ditu, oro har herritar guztiei onura dakarkietenak, baita jarduera-programa bereziak ere, besteak beste:

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA Y LA ASOCIACIÓN DE VECINOS DE SASOETA

SE IDENTIFICAN

De una parte, Agustín Valdivia Calvo en calidad de Sr. Alcalde del Ayuntamiento de Lasarte-Oria con NIF: P-2009500-F, autorizado para la firma de este convenio de conformidad con lo previsto en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Y de otra parte, Iban Muñoz Mena, con DNI XXX4505XX, en nombre y representación de la ASOCIACIÓN DE VECINOS SASOETA y domicilio social y fiscal en Lasarte-Oria, Kale Nagusia 46 behean (20160 - Gipuzkoa), con CIF G20449963

La Asociación se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones del la AGPV con el nº de inscripción AS/G/320220/2016

Que las partes tienen y se reconocen la capacidad legal suficiente para firmar un convenio de colaboración en su propio nombre y en el de las instituciones que representan, y en su virtud.

EXPONEN

I.- Que la ASOCIACIÓN DE VECINOS SASOETA está interesada en la colaboración con el ayuntamiento de Lasarte-Oria en la realización de proyectos sociales y culturales que tengan por objeto la realización de actividades dentro del ámbito del objeto social de la misma y en particular, según se recogen en sus estatutos:

Kulturgintza: Actividades culturales y deportivas sin ánimo de lucro.

II. Que la ASOCIACIÓN DE VECINOS SASOETA viene desempeñando dentro del término municipal de Lasarte-Oria un conjunto de tareas y actividades que redundan en beneficio de la ciudadanía en general y con programas de

actuación específicos, entre otros:

Elkartearen helburua Sasoetako bizilagunen eskubide eta interesak zaintzea eta auzokideen arteko elkartasuna eta adiskidetasuna sustatzea da

El objetivo de la asociación es el de velar por los derechos e intereses de los vecinos de Sasoeta y fomentar la solidaridad y amistad entre los vecinos.

III. SASOETA AUZO ELKARTEA-k adierazten du ez dagoela Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitako onuradun izaera erdiesteko debekuen artean.

III. Que la ASOCIACIÓN DE VECINOS SASOETA declara que no está incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.

IV.- Udalaren iritziz, elkarte horrek egiten duen lana interes publikokoa da, eta Udal honek Lasarte-Oriako tradizioak sustatzeko eta ezagutzera emateko xedez burutzen dituen jardueren bultzada eta osagarri da. Eta horrez gain, Departamentuak antolatzen dituen jardueren eremuan irabazi asmorik ez duten ekimen sozialek parte har dezatela sustatzen du.

IV.- Que el Ayuntamiento considera que la labor que realiza dicha asociación es de interés público, lo cual supone un fomento y complemento de las actuaciones que este Ayuntamiento viene desarrollando en el ejercicio de sus funciones encaminadas al fomento y la difusión de las tradiciones. Así como la promoción de la participación de la iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de las actividades organizadas desde el departamento.

IV.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 2ko 2/2016 Legearen 17.1 artikulua (20) apartatuaren arabera, udalerrien eskumena da «kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea».

V.- Que es competencia propia de los municipios conforme al apartado 20) del artículo 17.1 de la Ley 2/2016, de 2 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi la «ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público»

VI. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 22.2 eta 28.1 artikuluek aukera ematen dute zuzeneko dirulaguntzak emateko hitzarmenak formalizatzeko. Helburua Lasarte-Oriako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalen enpresak bultzatzeko eta dinamizatzeko jarduerak eta ekintzak sustatzea eta babestea da

VI.- Que los artículos 22.2 y 28.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones posibilitan formalizar convenios para otorgar subvenciones directas. Que la finalidad del presente convenio es promover y apoyar actividades de interés público que cooperen a la satisfacción de necesidades o intereses propios de la comunidad vecinal local.



VII.- Lasarte-Oriako 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DPE), Alkatetzaren otsailaren 29ko 442/2024 Dekretuaren bidez onartu eta 2024ko apirilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (79 zk.) argitaratutakoan, dirulaguntzen ildo espezifiko hau jasotzen dela

VII.- Que en el Plan Estratégico de Subvenciones de Lasarte-Oria 2024-2026 (PES) aprobado mediante Decreto de Alcaldía 442/2024, de 29 de febrero y publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 24 de abril de 2024 (nº79) se incluye esta línea específica de subvención

VIII.- Lortu nahi den helburua erdiesteko xedez jardungo duen erakunde bakoitzak horretan esku hartzeko baldintza orokorrak finkatzeari begira, HITZARMEN hau izenpetu da, eta Diru-laguntzen Ordenantzan xedatutako ondorioetarako, oinarri arautzaileen izaera edukiko du, ondorengo klausula hauekin bat etorritz:

VIII.- Que a los efectos de establecer las condiciones generales de la intervención de cada una de las instituciones actuantes para conseguir el fin que se persigue, se suscribe el presente CONVENIO, que tendrá carácter de bases reguladoras a los efectos de lo dispuesto en la Ordenanza de Subvenciones, y con arreglo a las siguientes:

KLAUSULAK

LEHENA.- Dirulaguntzaren xedea

Hitzarmen hau SASOETA AUZO ELKARTEA-k egindako jardueretatik emanaldietatik eratorritako gastuak zati batean finantzatzeko formalizatu da. Gastu horiek 2024an aurkeztu duen jarduera-memorian zehaztu dira

BIGARRENA.- Indarrean sartzea eta indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eta aurtengo urte honetan, 2024ko abenduaren 31 arte luzatuko da bere indarraldia; nolanahi ere, hitzarmen hau ezingo da gehiago luzatu.

HIRUGARRENA.- Elkartearen betebeharrak.

Hitzarmen honek aurkezten dituen jarduerak garatu ahal izateko, Elkarteak hitz ematen du ondorengo betebeharrak beteko dituela hura indarrean dagoen bitartean:

1. Hitzarmen honen xede diren jarduerak egiten dituela egiaztatzea, aurkeztutako memoria jasotako xehetasunen arabera eta Lasarte-Oriako Udalaren Osoko Bilkurak dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzan oinarrituz.

2. Jasotako diru-laguntza hori oso-osorik emandako helbururako xedatuko du.

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto de la subvención

El presente convenio se formaliza al objeto de financiar, en parte, los gastos derivados de las actuaciones de la ASOCIACIÓN DE VECINOS SASOETA detallados en la memoria de actuación que ha presentado en 2024.

SEGUNDA.- Entrada en vigor y plazo de Vigencia

El presente convenio entrará en vigor a partir de la fecha de su firma, manteniendo su vigencia durante el presente año natural hasta el 31 de diciembre de 2024, sin que el mismo pueda tener carácter prorrogable.

TERCERA.- Obligaciones de la ASOCIACIÓN.

Para el desarrollo de las actividades incluidas en el presente convenio, la Asociación se compromete a asumir las siguientes obligaciones durante su periodo de vigencia:

1. Acreditar la realización de las actividades objeto del presente convenio, de acuerdo al detalle recogido en la memoria presentada, así como en base a la ordenanza Municipal reguladora de subvenciones aprobada en Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

2. Destinar íntegramente la subvención recibida al fin para el que se concede.

3. Beharrezkoa den informazioa jakinaraziko du Lasarte-Oriako udalerrri barruan eragindako pertsonen ezagutza dezaten, eta Lasarte-Oriako Udalaren logotipo instituzionala egiten den propaganda guztian barneratuko du.

4. Jarduera horiek guztiak horien hartzaileentzat zentzuzkoa den ordutegi baten barruan garatuko dituzte, ezohiko kasu batzuetan izan ezik, eta halakoetan, Lasarte-Oriako Udalaren berariazko baimena beharko da.

5. Aipatutako jarduera horiek herritartasun onaren arau arruntei jarraiki egingo dituzte, horiek egiten diren bitartean eragozpenik eta arazorik sortu gabe.

6. Teknikariek eta udaleko gainerako langileekin egingo diren koordinazio, programazio, jarraipen eta ebaluaziorako bileretara joango dira, hitzarmenaren xede diren jardueren jarraipen egokia eta, halaber, horien ebaluazioa egin ahal izateko.

7. Programatutako jarduerak garatzeak eta burutzeak, eta elkarteko kideek beren eginkizun eta jarduerak betetzeak eragiten dituen erantzukizunak bere gain hartuko dituzte.

8. Urteko indarraldia izango duen jarduera-proiektu tekniko-ekonomiko bat aurkeztuko dute proiektuaren hasieran, jasoko diren funtsak zehaztuz, eta halaber, jardueren amaierako txosten bat lotuta utziko dute, hurrengo apartatuetan zehaztuko diren bide formaletatik aurkeztu beharko dena, emandako diru-laguntza justifikatzeko epearen barruan.

3. Difundir la información necesaria para el conocimiento de las personas afectadas dentro del término municipal de Lasarte-Oria e incluir el logotipo institucional del Ayuntamiento de Lasarte-Oria en toda la propaganda que realicen.

4. Desarrollar las actividades dentro de un horario asequible por parte de los destinatarios de las actividades, salvo casos excepcionales que requerirán la autorización expresa del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

5. Realizar las actividades mencionadas dentro de las normas ordinarias de buena vecindad, sin causar molestias ni perturbaciones durante el desarrollo de las mismas.

6. Asistir a las reuniones de coordinación, programación, seguimiento y evaluación con los técnicos y demás personal municipal, al objeto de realizar el adecuado seguimiento de las actividades objeto del convenio y asimismo la evaluación de las mismas.

7. Asumir las responsabilidades derivadas del desarrollo y ejecución de las actividades programadas, del cumplimiento de las tareas y funciones de los miembros de la organización.

8. Presentar un proyecto de actividades técnico-económico con vigencia anual al inicio del proyecto con especificación de los fondos a percibir, así como la suscripción de una memoria final de actividades que habrá de ser presentada por los cauces formales que se especifican en los apartados siguientes y dentro del plazo de justificación de la subvención concedida.



9. Lagatako udal espazio eta instalazioak hitzarmen honen xede diren eginkizun edo jardueretarako bakarrik erabiliko dituzte, eta betiere Erakundearen Estatutuen barruan, horiek egoki erabiliko direla zainduz, eta horiek jaso zituzten egoera berean itzuli beharko dituzte, eta beren kontura izango dira horiek erabiltzeak eragin ahal izan dituen kalteak.

10. Erantzukizun zibilaren-poliza bat edukitzea (300.000 euro)

LAUGARRENA.- Euskararen erabilerari buruzko konpromisoa

1.- Elkarateak euskara edo, bestela, euskara eta gaztelania erabiliko ditu egiten dituen jarduerak eremu, deialdi, publizitate eta abarretan, Euskarari buruzko araudiak ezarritakoarekin bat etorriz.

Lasarte-Oriako Udalak atal honetan zehazten diren hizkuntza-konpromiso guztiak betetzen direla ikuskatu ahal izango du. Horretarako, kasuan kasu erabakiko du zein neurketa-sistema erabili eta elkartea derrigortua dago eskatzen zaion informazioa ematera.

2.- Jarduera adin guztietako herritarrei zuzendua bada, eta haiekin ahozko harreman zuzena baldin badu, lehenengo hitza euskaraz egingo dio herritarrei, eta ondoren herritarrak egindako hizkuntza-hautuaren arabera jarraituko du. Harremana megafonia bidezkoa bada, bi hizkuntzetan egingo da, lehenik euskara erabiliz.

Haiekin idatzizko harremanik baldin badu, herritarren esku jartzen dituen idatzizko elementuak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera.

3.- Jarduera 16 urtetik beherakoei zuzendua bada, euskaraz izango da, ahoz zein idatziz.

BOSGARRENA.- Genero-berdintasunari buruzko konpromisoa.

Elkarateak konpromiso hauek hartuko ditu:

9. Utilizar los espacios municipales e instalaciones cedidos sólo para aquellas funciones o actividades objeto del presente convenio, y siempre dentro de los Estatutos de la Entidad, velando por su correcta utilización, debiendo entregarlos en el mismo estado en el que los recibieron, corriendo de su cuenta los desperfectos que su uso hayan podido ocasionar.

10. Disponer de una póliza de responsabilidad civil (300.000 euros)

CUARTA.- Compromiso en la Utilización del euskera

1.- La Asociación utilizará el euskera o conjuntamente el euskera y el castellano en todos los ámbitos de las actividades que se realicen, convocatorias, publicidad, etc., de acuerdo con la normativa de Euskera.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá inspeccionar el cumplimiento de todos los compromisos lingüísticos que se establecen en este apartado. A tal efecto, determinará en cada caso el sistema de medición a utilizar y la asociación estará obligada a facilitar la información que se le requiera.

2.- Cuando la actividad vaya dirigida a ciudadanos de todas edades y tenga relación oral directa con los mismos, la conversación con el ciudadano se iniciará en euskera y se continuará en función de la elección lingüística del ciudadano. Cuando la relación sea por megafonía, se realizará en ambas lenguas, utilizando en primer lugar el euskera.

Quando la relación sea por escrito, los elementos escritos que se pongan a disposición de los ciudadanos se darán a conocer en euskera y castellano.

3.- Cuando la actividad vaya dirigida a menores de 16 años, la misma se realizará en euskera, tanto oralmente como por escrito.

QUINTA.- Compromiso en Igualdad de género.

La asociación se compromete a:



1. Dokumentazio, komunikazio-kanpaina, kartel, publizitate eta irudi guztiek gizonak eta emakumeak (edo mutilak eta neskak) modu orekatuan jaso beharko dituzte, emakumeen edo estereotipoen irudi diskriminatzaile oro saihestuz, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen pluraltasunaren balioak dituen irudia sustatuz. Sexistak.
2. Jarduera edo proiektua gauzatzean sortzen diren agiri, publizitate, irudi edo material guztiek hizkera bera, inklusiboa eta ez-sexista erabili beharko dute.
3. Protokolo bat edo berariazko neurri batzuk diseinatu eta aplikatu beharko dira, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko, prestazioaren edo jardueraren onuradunen edo erabiltzaileen aurkako sexu-jazarpena prebenitzeko, eta/edo indarkeria matxistako edo sexu-orientazioko edo genero-identitateko egoerak prebenitzeko.

SEIGARRENA.- LASARTE-ORIAKO UDALAREN betebeharrak.

Udalak, Kultur Departamentuaren bitartez, konpromiso hauek hartuko ditu:

1. Emandako diru-laguntzaren erantzule den Elkartearekin jarraipen eta koordinaziorako bileretarako deia egin eta bertan parte hartuko du.
2. Udalaren baliabideen bitartez programatutako jarduerak ezagutzera ematen lagunduko du.
3. Diru-laguntza izaera duen eta hurrengo apartatuan ageri den ekarpen ekonomikoa egingo du.

1. Toda la documentación, campañas de comunicación, cartelería, publicidad e imágenes deberá incorporar a hombres y a mujeres (o chicos y chicas) de manera equilibrada, evitando cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos, y fomentando una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género. Sexistas.
2. Toda la documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución de la actividad o proyecto, deberá emplear un uso igualitario, inclusivo y no sexista del lenguaje.
3. Se deberá diseñar y aplicar un protocolo o medidas específicas para prevenir y hacer frente al acoso sexual y al acoso por razón de sexo, o para prevenir el acoso sexual contra las personas beneficiarias o usuarias de la prestación o actividad; y/o para prevenir las situaciones de violencia machista o por orientación sexual o por identidad de género.

SEXTA.- Obligaciones del AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA.

El Ayuntamiento a través del Departamento de Cultura se compromete a:

1. Convocar y asistir a las reuniones de seguimiento y de coordinación con la Asociación responsable de la subvención concedida.
2. Contribuir mediante los medios municipales a realizar la difusión de las actividades programadas.
3. Realizar la aportación económica con carácter de subvención que figura en el apartado siguiente.



4. Jabari publikoko eta udal jabariko eremuen lagapenak egingo ditu, baita hitzarmenaren xede diren jarduerak garatzeko beharrezkoak diren instalazioenak ere, horrelakoek eragiten dituzten Tasak ordaindu behar izatetik salbu utziz, betiere erabilgarri baldin badaude.

ZAIZPIGARRENA.- Ekarpen ekonomikoa.

1.- Aipatutako erakunde horrek aurkeztutako gastu-aurrekontu orokorra 14.478 eurokoa da.

2.- Lasarte-Oriako Udalak hitzematzen du gehienez ere 4.588,29 euroko diru-ekarpena egingo duela, aldez aurretik 2024ko ekitaldirako bere Aurrekontu Orokorreko 1.4300.481.01.338.00

zk. kontu-sailean izendatua.

3.- Diru-laguntza jasoko duen proiektu hori finantzatzeko bidea ondorengo hau izango da:

* “Zenbateko jakinekoa” da, kostu osoaren ehuneko edo zatiki bati erreferentziarik egiten ez diona, eta horrenbestez ulertzen da onuradunaren kontura izango dela diru-laguntza jasoko duen jarduera hori erabat gauzatzeko beharrezkoa den finantzaketaren aldea, eta hala egokituz gero, itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzen duen zenbatekoagatik finantzaketa publikoa.

ZORTZIGARRENA.- Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta moduak.

Diru-ekarpen hori bi epetan ordainduko da:

* % 60 konturako ordainketa gisa, hitzarmen hau sinatzen denean.

* Gainerako % 40a, funtsei emandako xedea justifikatzen denean, hurrengo klausulan finkatzen den moduan, eta aurrez Lasarte-Oriako Udarekin dituen zerga-betebehar guztietan egunean dagoela egiaztaturik.

BEDERATZIGARRENA.- Diru-laguntza justifikatzeko epea eta modua.

4. Realizar las cesiones de espacios de dominio público y municipal, así como de las instalaciones que fueran necesarias para el desarrollo de las actividades objeto del convenio, exentas del abono de las Tasas que de ello se deriven, siempre que se encuentren disponibles.

SÉPTIMA.- Aportación económica.

1.- El Presupuesto global de gasto presentado por la citada entidad alcanza la cantidad de 14.478 euros

2.- El Ayuntamiento de Lasarte-Oria se compromete a aportar la cantidad máxima de 4.588,29 euros, previamente consignadas en la aplicación presupuestaria 1.4300.481.01.338.00

de su Presupuesto General para el ejercicio de 2024.

3.- La modalidad de financiación del proyecto subvencionado será la siguiente:

* De “Importe cierto” sin referencia a un porcentaje o fracción del coste total, por lo que se entenderá que queda de cuenta del beneficiario la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución de la actividad subvencionada, debiendo ser reintegrada, en su caso, la financiación pública por el importe en que la misma exceda del coste total de dicha actividad.

OCTAVA.- Plazos y modos de pago de la subvención.

La aportación se hará efectiva en dos pagos:

* 60 % como abono a cuenta, a la firma del presente convenio.

* El 40 % restante a la justificación del destino dado a los fondos de la forma que se establece en la cláusula siguiente, y previa la acreditación de estar al corriente de todas las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

NOVENA.- Plazo y forma de justificación de la subvención



1.- Justifikazioa aurkezteko epea bukatuko da 2024ko abenduaren 31n, eta aipatutako epe hori betetzen ez bada, diru-laguntza justifikatu gabe geratu dela ulertuko da eta, hala egokituz gero, itzuli egin beharko da legez aurreikusitako bideak erabiliz, baldin eta diru-laguntza hori borondatezko bidetik itzultzen ez bada.

2.- Diru-laguntza honen zenbatekoari kasu eginez, justifikatzeko modalitatea Justifikazio kontu-simplifikatua izango da, eta gutxienez, ondorengo informazioa jasoko du:

* Hitzarmen honetan ezarritako baldintzak bete izana justifikatzen duen jarduera-memoria bat, egindako jarduerak eta erdietsitako emaitzak adieraziz.

* Jardueraren gastu eta diru-sarrera guztien zerrenda sailkatu bat, onetsitako aurrekontuan aldeztu aurretik ezarritako banaketarekin bat etorriko dena, hartzekodunaren nortasuna eta agiria, horren zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala egokituz gero, ordainketa-eguna ere adieraziz.

“Laginketa” prozeduraren bidez izango da, eta zehazki eskatutako diren gastuen justifikazioa fakturen jatorrizkoak eta kopiak eta merkataritza-zuzenbideko trafikoan erabiltzen diren edo administrazio-eraginkortasuna duten balio frogagarri baliokideko gainerako agirien jatorrizkoak eta kopiak aurkeztuz egiaztatuko da.

* Diru-laguntza jaso duen jarduera finantzatu duten gainerako diru-sarrera, baliabide edo diru-laguntzei buruzko xehetasuna, horien zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

1.- El plazo máximo para presentar la justificación será el 31 de diciembre de 2024, comportando el incumplimiento del citado plazo la consideración de no justificación de la subvención y el reintegro, en su caso, de la misma por los cauces legalmente previstos si no se procediera a su reintegro en vía voluntaria.

2.- Atendiendo a la cuantía de esta subvención la modalidad de justificación será la Cuenta Justificativa Simplificada y contendrá como mínimo la siguiente información:

* Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en el presente convenio, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

* Una relación clasificada de todos los gastos e ingresos de la actividad, en concordancia con la distribución establecida previamente en el presupuestado aprobado, y con la identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

La justificación de gastos se realizará por el procedimiento de “muestreo” y se acreditarán aportando solamente los originales y copia de las facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa que hayan sido expresamente solicitados.

* Un detalle de otros ingresos, recursos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia



3.- Aurkeztutako justifikazioa egiaztatzeko beharrezko jotzen duen informazio eta dokumentazio guztia eskatu ahal izango du Lasarte-Oriako Udalak; eta “moneta-unitateen” laginketa-teknikak erabiliz, egoki ikusten dituen frogagiriak egiaztatu ahal izango ditu, diru-laguntza egoki aplikatu izanari buruzko arrazoizko ebidentzia erdietsi ahal izateko, eta horri begira, aukeratutako gastuen frogagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

4.- Hitzarmen honek aipagai duen jarduera burutzearekin zuzenean loturiko frogagiriak bakarrik onartuko dira. Ez da onartuko hitzarmen honen xede den jardueraren programak berezkoak ez dituen otordu, bazkari, ospakizun, elikagai eta antzeko izaera duten beste batzuen justifikaziorik.

5.- 2024an garatu beharreko programa eta horren aurrekontua, hitzarmen honen eranskin gisa datorrena, oinarritzko eredu gisa erabiliko da justifikazioan.

6.- Diru-laguntzaren onuradunak aurkeztutako eskaera hori berridatzi egin dezake baldin eta azkenean onartu den diru-laguntza hasierako eskabide horretan ageri dena baino txikiagoa bada, bere konpromisoak eta jarduerak benetan emandako diru-zenbatekoaren arabera egokitzearen.

7.- Diru-laguntzaren helburuak bete ondoren, eta hitzarmeneko programaren batean aplikatu ez diren gerakinak erdietsi baldin badira, proiektu horretan bertan sortu ahal izan diren gastu gehigarrietarako erabiltzeko baimena eskatu ahal izango dio Udalari, baita izaera bera edo antzekoa duten eta diru-laguntza jaso dezaketen beste jarduera batzuetarako ere.

HAMARGARRENA.- Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak

3.- El Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá requerir toda aquella información y documentación que considere necesaria para acreditar la justificación presentadas; y comprobar, a través de técnicas de muestreo de “unidades monetarias” los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir al beneficiario la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.

4.- Solo se admitirán justificantes directamente relacionados con el ejercicio de la actividad al que se refiere el presente convenio. No se admitirán justificaciones relativas a ágapes, comidas, celebraciones, alimentos y otras de análoga naturaleza que no sean propias del programa de la actividad objeto de este convenio.

5.- El programa y el presupuesto a desarrollar en 2024 y que figura como anexo a este convenio se utilizará como modelo base en la justificación.

6.- El beneficiario de la subvención podrá reformular la solicitud presentada en el supuesto de que la subvención finalmente concedida sea inferior a la que figura en dicha solicitud inicial, con el objeto de ajustar sus compromisos y actividades al importe efectivamente concedido.

7.- Una vez cumplidos los objetivos de la subvención y cuando haya obtenido remanentes no aplicados en alguno de los programas convenidos, este podrá solicitar al Ayuntamiento la autorización para utilizarlo en el exceso de gastos que se hayan producido en el propio proyecto o en otras actividades subvencionables de la misma o análoga naturaleza.

DÉCIMA.- Gastos subvencionables



Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira ezarritako epearen barruan egiten diren guztiak eta diru-laguntza jasotzen duen erakundearen ohiko funtzionamenduak eragiten dituenak, betiere Lasarte-Oriako udal mugartean eta hitzarmen honen xede den urte naturalaren barruan. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskurapen-kostua inola ere ezin daiteke izan merkatuko balioa baino handiagoa.)

HAMAIKAGARRENA.- Bermeen erregimena

Onuradunari ez zaio eskatuko bermeak aurkez ditzala, Hitzarmen honen arabera bere gain hartu dituen betebeharren erregimena ez betetzeko arriskurik aurreikusten ez delako.

HAMABIGARRENA.- Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

Hitzarmen honen xede den diru-laguntza beste diru-laguntza batzuekin bateragarria izango da, betiere emandako zenbateko osoa jarduera horretarako aurrekontuan sartutako diru-kopuruaren % 100 gainditzen ez bada, eta hori gertatzen bada, dagokion gehieneko mugaraino murriztuko da diru-laguntza.

HAMAHIRUGARRENA.- Zergekiko betebeharretan eta Segurantzaren Sozialekiko egunean dagoela egiaztatzea. Elkarreragingarritasuna

Hitzarmena sinatzen den unean, eta ordainketa jaso aurretik, HITZARMENA SINATZEN DUEN ELKARTEAK zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatuko da, horrez gain Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituela egiaztatuko da.

Lasarte-Oriako Udalak informazioa kontsultatu edo bildu ahal izango du Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) bidez egiaztatzeko:

- AGE- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia - Nortasun Datuen Kontsulta - Egiaztapena

Se consideran gastos subvencionables todos los que se realicen en el plazo establecido y se deriven del normal funcionamiento de la entidad subvencionada dentro del término municipal de Lasarte-Oria dentro del año natural objeto del presente convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.)

UNDÉCIMA.- Régimen de garantías

No será exigible la presentación de garantías por parte del beneficiario por cuanto no se aprecia riesgo de que se incumpla el régimen de obligaciones asumidas en virtud de éste Convenio.

DUODÉCIMA.- Compatibilidad con otras subvenciones

La subvención objeto de este convenio será compatible con otras subvenciones, siempre que el importe total concedido no supere el 100% de la cantidad presupuestada para la actividad, reduciéndose la subvención, si esto ocurriese, hasta el límite máximo correspondiente.

DECIMOTERCERA.- Acreditación de estar al corriente de sus obligaciones Fiscales y con la Seguridad Social. Interoperabilidad

En el momento de la firma del convenio y con carácter previo a la percepción del pago se verificará que la asociación QUE SUSCRIBE EL CONVENIO se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y que cumple con el resto de requisitos establecidos para ser beneficiario en el artículo 11 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria podrá consultar o recabar información para su verificación a través del Nodo de Interoperabilidad y Seguridad (NISAE) de las Administraciones de Euskadi:

- AGE- Dirección General de la Policía - Consulta de Datos de Identidad-Verificación



.- Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Ogasuna, Nafarroa edo ZAEA: zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta

.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko betebeharrak egunean ordainduta kontsultatzeko zerbitzua

AGE: Justizia Ministerioa: Sexu-delituengatiko aurrekari penalik eta aurrekaririk ez dagoen kontsulta zerbitzua (soilik, adingabeekin lan egiten duten elkartearen ordezkarien datuak egiaztatzeko)

Datu horiek kontsultatu edo bildu ez direla uste izanez gero, ordezkariak arrazoituta justifikatu beharko du aurka dagoela (EE Erregelamenduaren 21. artikulua). 2016/679 Datuak Babesteari buruzkoa), hori egiaztatzen duen dokumentua aurkezteaz gain.

☐ X Ez dago aurka.

☐ Bai, aurka dago eta dokumentazioa aurkeztuko du

Erakundeak egunean izan beharko ditu Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak, Lasarte-Oriako Udala eta Gizarte Segurantzarekikoak barne. Horretarako, aipatutako erakundeek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte, udalarena izan ezik, ofizioz egiaztatuko baitu, hitzarmen hau sinatu baino sei hilabete lehenago.

HAMALAU GARRENA.- Konfidentzialtasunaren betebeharra. Datu pertsonalen babesa. Gardentasuna.

Hitzarmenak irauten duen bitartean, eta haren ondoren, hitzarmen honen ondorioz erakunde sinatzaileek erabilitako eta helarazitako informazioa Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen

.- Hacienda Foral del País Vasco, Navarra o AEAT: Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias

.- Tesorería General de la Seguridad Social: Servicio de consulta al corriente en el pago de obligaciones con la TGSS

- AGE: Ministerio de Justicia: Servicio de consulta sin antecedentes penales ni penales por delitos sexuales (sólo para acreditar los datos de los representantes de la asociación que trabajan con menores

En caso de considerar que no se han consultado o recabado dichos datos, la persona representante deberá justificar motivadamente su oposición (artículo 21 del Reglamento CE). 2016/679 de Protección de Datos), además de presentar el documento que lo acredite.

☐ X No se opone.

☐ Sí, se opone y aportará la documentación

La Entidad deberá encontrarse al corriente en pago de sus obligaciones tributarias con la Hacienda Foral, incluido el Ayuntamiento de Lasarte-Oria y frente a la Seguridad Social. Para ello, deberá presentar los correspondientes certificados expedidos por los citados organismos, salvo el de ayuntamiento que lo verificará de oficio, en un plazo no anterior a seis meses a la fecha de la firma del presente convenio.

DECIMOCUARTA.- Deber de Confidencialidad Protección de datos de carácter personal. Transparencia

Durante la duración del Convenio y con posterioridad al mismo, la información manejada y transmitida por las entidades firmantes con motivo de este Convenio, se regirá por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y por el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de



tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena) arautuko da.

Hitzarmena argitaratuko da Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalan eta Lasarte-Oriako udalaren Gardentasun atarian.

HAMABOSGARRENA.- Hitzarmenaren jarraipena

1.- Hitzarmen hau jarraitzeko eta kontrolatzeko, alderdi jarduleek elkarren arteko adostasunez erakunde parte-hartzaileek izendatzen dituzten ordezkariak osatutako batzorde bat eratu ahal izango dute, eta egoki jotzen duten maiztasunez egingo dituzte bilerak

Hitzarmen honen garapenean sor litezkeen gorabehera guztiak ezagutzeko eta horiek ebazteko ahalmena izango du batzorde honek.

2.- Hala ere, barne kontrola egokituko zaie Udal kontuhartzailetzari eta kanpoko control-organoei.

las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de sus datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos).

El convenio se publicará en la Base Nacional de Datos de Subvenciones y en el Portal de Transparencia del ayuntamiento de Lasarte-Oria

DECIMOQUINTA.- Seguimiento del convenio.

1.- Para el seguimiento y control del presente convenio las partes actuantes podrán constituir de común acuerdo una comisión integrada por los representantes que nombren las instituciones intervinientes, que se reunirán con la frecuencia que estimen oportuno

Esta comisión tendrá la facultad del conocimiento y resolución de cuantas incidencias se pudieran suscitar en el desarrollo del presente convenio.

2.- No obstante, el control interno corresponderá a la Intervención municipal y a los órganos de control externos.

HAMASEIGARRENA.- EZ BETETZEAGATIKO ERANTZUKIZUNA.

Justifikaziorik ez badago, jasotako eta justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli beharko dira, eta ez da dirulaguntza berririk emango.

Dirulaguntzen onuradunari dagozkion egiaztapen-jarduerak egin beharko zaizkio, eta helburu bererako beste dirulaguntza batzuk lortu baditu dirulaguntza eman duen organoari

DECIMOSEXTA.- RESPONSABILIDAD POR INCUMPLIMIENTO.

La no justificación en su caso llevará aparejada la devolución y reintegro de las cantidades percibidas y no justificadas, así como la no concesión de nuevas subvenciones.

La persona beneficiaria de las subvenciones estará sujeta a las actuaciones de comprobación correspondiente y a comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones



jakinarazi beharko dio.

Lasarte-Oriako Udalak beretzat gordetzen ditu laguntzen eta dirulaguntzen espedienteek buruz egokitzen jotzen dituen gainbegiratze-eginkizunak. Nolanahi ere, behar ez bezala lortu, erabili edo justifikatu izanaren zantzurik ikusten bada, indarrean dagoen legerian aurreikusitako neurri egokiak hartu ahal izango ditu.

Era berean, dagozkion legeko prozeduren bidez, emandako laguntzak zertarako eta nola erabili diren egiaztatu ahal izango du.

Erakunde onuradunak dirulaguntzen arloan egin ditzakeen arau-hausteei eta administrazio-zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren IV. Tituluan eta araudian xedatutakoa beteko da.

HAMAZAZPIGARRENA.- Bertan behera uzteko eta azkentzeko arrazoiak.

Ondorengo arrazoiek hitzarmen hau amaiaraztea eta baliogabetuta uztea eragin dezakete:

a) Hitzarmen honen xede diren eta jaso diren diru-ekarpenak emandako helburu horretarako ez erabiltzea Elkarrekin.

b) Erakundearen jarduerak behin betiko bertan behera uztea, edota ekitaldiaren barruan sei hilabetetik gorako epe batez horiek bertan behera uztea.

c) Hitzarmen honen xede diren ekarpen ekonomikoen kontura egindako gastuak dagokion dokumentazioaren bitartez justifikatzeko betebeharra ez betetzea, eta horrez gain, indarreko legeriaren arabera urratu diren erantzukizunak eskatu ahal izango dira.

d) Hitzarmen honetan jaso diren hizkuntza-konpromisoak behin eta berriz ez betetzea.

e) Zabalkundea emateko xedez hitzarmen honetan xedatutako neurriak hartu beharra ez betetzea.

para el mismo fin.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria se reserva las funciones de supervisión que estime oportunas sobre los expedientes de ayudas y subvenciones, sin perjuicio de que, cuando se deduzcan indicios de incorrecta obtención, destino o justificación, podrá adoptar las medidas pertinentes previstas en la legislación vigente.

Igualmente podrá realizar, mediante los procedimientos legales pertinentes, las comprobaciones sobre el destino y aplicación de las ayudas concedidas.

En cuanto a posibles infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones en que pudiera incurrir la entidad beneficiaria, se estará a lo dispuesto en el Título IV de la Ley General de Subvenciones y en el reglamento.

DECIMOSÉPTIMA.- Causas de resolución y extinción

Podrán dar lugar al vencimiento, mediante resolución del presente convenio, las siguientes causas:

a) No destinar por parte de la Asociación las aportaciones recibidas objeto de este convenio para la finalidad que se concede.

b) La suspensión definitiva de las actividades de la entidad, así como su suspensión temporal por plazo superior a seis meses en el ejercicio natural.

c) El incumplimiento de justificar mediante la correspondiente documentación los gastos realizadas con cargo a las aportaciones económicas objeto de este convenio, si perjuicio, de exigir las responsabilidades en las que se incurra según la legislación vigente.

d) Incumplimiento reiterado de los compromisos lingüísticos recogidos en este convenio.

e) Incumplimiento de la obligación de adoptar las medidas de difusión contenidas en este convenio.

f) Eta oro har, agiri honen arabera erakundeak bere gain hartu dituen obligazioen beste edozein ez-betetze, baldin eta oso larritzat jotzen bada.

Lasarte-Oriako Udalari egotzi ezin zaion arrazoi bategatik hitzarmen hau amaiarazteko espedientea abiarazten bada, jasotako diruzenbatekoak itzultzeko eskatuko dute zerbitzu ekonomikoek eta, hala egokituz gero, baita berandutza-interesak ere dagokion lege-interesaren arabera.

HEMEZORTZIGARRENA.- Itzulketa

1.- Onuradunak helburu, jarduera eta proiektu horiek guzti-guztiak bete beharko ditu, Hitzarmen honen oinarri diren jokabideak hartu eta hori dela eta bere gain hartutako konpromisoak bete.

2.- Proportzionaltasunaren irizpidea kontuan izanik, diru-laguntza emateko oinarri izan ziren helburu, jarduera, proiektu edo jokabideen balizko urraketak sailkatuko dituztenak, eta jasotako zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli behar den edo zenbateko hori osorik edo horren zati bat kobratzeko eskubidea galdu den erabakiko dutenak, eta horiez gain, Diru-laguntzen Udal Ordenantzan izaera orokorrezt ezarrita daudenak.

HEMERETZIGARRENA.- Araudi Erregulatzaila.

Ondoren aipatzen diren araudi erregulatzailen mende egongo da hitzarmen honen xede diren laguntzak ematea:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.

- 130/2019 Errege Dekretua, martxoaren 8koa, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituenak.

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa

f) Y en general cualquier otro incumplimiento por la entidad de las obligaciones asumidas en virtud del presente documento y que se consideren muy graves.

Caso de incoarse expediente para la resolución del presente convenio por causa no imputable al Ayuntamiento de Lasarte-Oria, se exigirá por los servicios económicos el reintegro de las cantidades percibidas, y en su caso, los intereses de demora al legal correspondiente.

DECIMOCTAVA.- Reintegro

1.- El beneficiario deberá cumplir todos y cada uno de los objetivos, actividades, y proyectos, adoptar los comportamientos que fundamentan este Convenio y cumplir los compromisos asumidos con motivo del mismo.

2.- Teniendo en cuenta el criterio de proporcionalidad, los criterios de graduación de los posibles incumplimientos de los objetivos, actividades, proyectos o comportamientos que fundamentaron la concesión de la subvención, y que determinarán si el incumplimiento dará lugar al reintegro total o parcial de lo percibido o a la pérdida del derecho al cobro total o parcial, serán los establecidos con carácter general en la Ordenanza Municipal de Subvenciones en tanto no contradigan los aquí estipulados.

DECIMONOVENA.- Normativa Reguladora.

La concesión de las ayudas objeto del presente Convenio están sujetas a la siguiente normativa reguladora:

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

- Real Decreto 887/2006 de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

- Real Decreto 130/2019, de 8 de marzo, por el que se regula la Base de Datos Nacional de Subvenciones y la publicidad de las subvenciones y demás ayudas públicas.

- Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno

- Diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantza, Udal Batzarrak 2011ko maiatzaren 12an behin betiko onetsia (126 zk. GAO, 2011ko ekainaren 29koa).

- Lasarte-Oriako Udalaren 2024-2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

- Hitzarmen honetan jasotako klausulak.

HOGEGARRENA.- ERANSKINAK.

Emandako diru-laguntza edo diru-ekarpena arautzen duen hitzarmeneko klausula hauek garatuz, jarrian deskribatzen diren Eranskinak doaz honekin batera:

* I. ERANSKINA.- Hitzarmen honetan jasotako zerbitzu eta jardueren deskribapena. (Aurkeztutako jardueren memoria)

* II. ERANSKINA.- Udalak onartuta duen Justifikazioa aurkezteko eredu.

Y, en prueba y conformidad, suscriben el presente documento en Lasarte-Oria a la fecha de la firma digital

SASOETA AUZO ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE VECINOS SASOETA



Iban Muñoz Mena

-Ordenanza Municipal reguladora de la concesión de subvenciones, aprobada definitivamente por el Ayuntamiento Pleno el 12 de mayo de 2011 (BOG n.º 126 de 29 de junio de 2011)."

- Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de Lasarte-Oria

- Las cláusulas contenidas en el presente Convenio.

VIGÉSIMA.- ANEXOS.

En desarrollo de las presentes Cláusulas del convenio regulador de la subvención o aportación concedida, se acompañan los Anexos que a continuación se describen:

* ANEXO I.- Descripción de los servicios y actividades contemplados en el presente convenio. (Memoria de actuaciones presentada)

* ANEXO II.- Modelo de presentación de la justificación aprobado por el Ayuntamiento.

Y, en prueba y conformidad, suscriben el presente documento en Lasarte-Oria a la fecha de la firma digital

Alkatea / El alcalde

Agustín Valdivia Calvo.

